

BERRIKARIAN EUSKARAREN IRAKASKUNTZA BERRI

3 HABE kazeta berri bat argitaratzen hasi da, «*Berrikaria*», irakasle zein euskara-sustatzaileei zuzendua. Joanba Bergarak, aldizkaria zuzentzen duen Heziketa Sailataleko arduradunak, esan digu komunikabide berri hori zertan den.

HABE.- Zenbatero argitaratuko da *Berrikaria* ?

JOANBA BERGARA.- Goiz da oraindik nozero argitaratuko den esateko. Izan ere, ez diogu inongo aldizkotasunik ipini, dinamikak berak esango baitigu noiz eman argitara. Batzuetan informazio gehiago edota presakakoagoa izango dugu eskuetan bestetan baino; eta horrexek behar gaitzake bi ale elkarren segidan argitaratzera. Horregatik, edukiak aginduko du, esate baterako, ikastaro batzuen berri berehala eman beharko dugu epe motzera burutuko direlako.

H.- Zeini bidaltzen diozue kazeta berri hau? Ba al duzue eskola eta institutuetara ere zabaltzeko asmorik?

J.B.- Gure asmoetan ez daude ez eskolak ezta institutuak ere, euskaltegiak baizik; eta zenbait enpresa. Alde batetik, helduen euskara-irakaskuntzan dihardutenak ditugu gogoan; eta,



Joanba Bergara HABEko Heziketa Sailatalaren arduraduna.

SUSTATZAILE.- Bultzatzen edo bizkortzen duena. Promotor.



bestetik, enpresetan euskararen **erabilera** bultzatzen ari direnak. Esate baterako, joan den apirilako *Euskararen Berripaperan* irakurri genuen Beasaingo CAF enpresak euskara gehiagotan erabiltzeko planak dituela. Horrelako lanen arduradunek, hau da, euskara-sustatzaileek jasoko dute *Berrikaria*.

H.- HABE aldizkariaren azpigituluak *Euskara ikasten ari garenon aldizkaria* dela dio, *BERRIKARIA*renak, berriz, *Euskara irakasten eta sustatzen ari garenon aldizkaria* dela irakurri dugu. Ba al duzue irakaskuntzatik kanpoko asmorik?

J.B.- *Berrikaria* irakaskuntzari estu-estu lotua dago; **funts**ean, hizkuntzaren ezagutza zabaltzen dutenei. Baina erabilera sustatzen dihar dutenak ere sartzen dira gure sarean, lehen aipatu bezala. Biek behar dute etengabeko prestakuntza beren lana ahalik ondoen burutzeko eta bigarren hizkuntzaren **esparruan** zer egiten den jakiteko.

H.- ZUTABE aldizkaria ere irakasleei zuzendua da. Zein izango da *Berrikariaren* berezitasuna?

J.B.- *Berrikariak* heziketarekin lotura zuzena duen informazio azkar eta labur ematea du **xede**: ikastaro, ihardunaldi, hitzaldi, liburu, mintegi eta abarren berri ematea, alegia.

Era horretan, informazioa elementu formatibo bilakatzen

da; esaterako, euskaltegi batean antolaturikoa besteentzako ispilu eta **hizpide** bihurtzen denean.

Gainera, elkar ezagutzeko aukera emango digu *Berrikariak*, bakarka nahiz taldeka egiten duguna elkarri jakinarazteko, iragarki-taula gisan erabiliz; baita inork zer edo zer egiteko lankidetzak eskatzeko ere. Bestela, nola jakin genezake, esate baterako, Leintz euskaltegiko (txikienetakoa da eta) irakasle batek gai bat jorrazteko laguntaldea osatu nahi balu.

ZUTABEK, aitzitik, artikulu luzeak jasotzen ditu. *Berrikarian* aipatzen den ikastaroa edo dena delakoa ZUTABEko artikulu-iturri izan daiteke, jakina, sakonkiro ikertua. Aldizkari honen helburu nagusia teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea da. Horrez gain, ezin ahantzi dugu lauhilabetekaria **dena**, eta horrek dakarren arintasunik eza.

H.- Irakasle eta sustatzaileei lankidetzak eskatu diezue. Nola **esku har** dezakete aldizkarian?

J.B.- Bai. Lankidetzak eskatu genuen 0 zenbakian, korrespontsal-sarea osatu nahi baitugu; zeren euskaltegiek prestakuntza-alorrean egiten duten guztia norbaitek jakinarazi beharko baitugu, eta hala berean kultur gintzan egiten den lanaren berri izan nahi genuke. Nola? Gurekin harremanetan jarri, telefonoz zein faxa bidez (tel: 943-412600 Faxa: 943-412601).

ERABILERA.- Uso.
FUNTS.- Muina, oinarria.
ESPARRU.- Eremua, arloa.
XEDE.- Helburua.

HIZPIDE.- Hizketa-gaia, eztabaida-gaia.
DENA.- Batzuek konpletiba (dela) erabiltzen dute honen ordez.
ESKU HARTU.- Parte hartu.